



EUSKARAZKO INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIEN INBENTARIOA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Euskarazko Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) Inbentarioa aurkeztu zuen ekainaren 28an Donostian, IKT-en arloan euskaraz dauden baliabideak eta tresnak zeintzuk diren herritarrei jakinarazteko, eta haiek erabili nahi dituztenek berehala eskuratu ditzaten errazteko.

Azken urteotan, lan handia egin da IKT arloan; baina guztiok ahalegin horien berri izateko, behar-beharrezkoa zen arlo horretan euskaraz dauden proiektuen eta ekimenen gaineko informazioa biltzeko gune bat sortzea. Hori horrela, HPSk arlo horretako Inbentarioa egiteari ekin zion 2006an, hain zuzen ere EAEko agenteekin lankidetzan; izan ere, agenteek bidalitako informazioaz osatu da IKT Inbentarioa.

Inbentarioak, batetik, proiektuei buruzko informazio sailkatua eskaintzen du, hau da, hemendik aurrera, euskaldunok uneoro izango dugu aukera euskaraz zein baliabide teknologiko dagoen eta horiek non eskuratu jakiteko. Bestetik, informazio hori bizirik mantentzeko, hau da, etengabe osatu, zuzendu eta eguneratzeko tresna izango da Inbentarioa aurrerantzean. Azken finean, xedea da IKT Inbentarioa euskarazko IKTen erreferentzia-gunea izatea eta, berari esker IKTen inguruko merkatua areagotzen eta, ondorioz, arlo horretako eskaintza eta demanda handitzen joatea.

Hona IKTen Inbentarioaren helburuak:

- Egindako edo egiteko bidean diren ekimenen diagnostikoa eta mapa izatea.
- Orain arte egindakoaren indarguneak eta ahuleziak antzematea eta aurrera begirako lehentasunak definitzea.
- Eusko Jaurlaritzaren plan estrategikoekin bat letozkeen proiektuak eta ekimenak identifikatzea, beti ere balio erantsia eta eraginkortasuna kontuan.
- EASen bitartez (Euskal Herriko Adierazle Sistemaren bitartez) informazio kualifikatua eskuratzea eta ezagutaraztea:
 - IKTeetan euskararen presentzia areagotzeko.
 - IKTeak euskarari erantsen diotena aztertzeko.

Inbentarioa www.euskara.euskadi.net/ikt_inbentarioa helbidean kontsulta daiteke.



Ezker-eskuin: Miren Dobaran, Patxi Baztarrika eta Araceli Díaz de Lezana

Aplikazioak bi arlo dauzka: Internetekoa eta Intranetekoa.

Interneten bidez, bi sarbide daude:

1. Erabiltzaile guztiek proiektuei (une honetan 296) eta agente teknologikoei (agenteen direktorioa izango da) buruzko informazioa lor dezakete.

Proiektuak euskaraz eta gaztelaniaz kontsultatu ditzakete lan-arloka (a) Hizkuntza-baliabideak eta -tresnak; b) Prestakuntza/e-learning; c) Itzulpenintzari laguntzeko tresnak; d) Sistema interaktibo aurreratuak; e) Informazioaren eta jakintzaren kudeaketa; f) Euskarazko softwarea; g) Eduki-industria (euskarazko eduki digitalak sortzea); h) E-inklusioa; i) Besterik.

Kontsulta aurreratua aukeratuz gero, bilaketa hainbat irizpideren arabera egin daiteke: a) Proiektuaren izena; b) Proiektu-mota (I+G+b; Aplikazioen/Produktuen garapena; Sustapena/Merkaturatzea); c) Egoera (aurreikusia; egiteko bidean; etengabe eguneratzen; amaitua); d) Testu-zati bat sartuta.

2. Agente teknologikoen, sisteman alta eman ondoren, Inbentarioko proiektuei eta beste agente teknologikoei buruzko informazioa kontsultatzeaz gain, beren proiektuei buruzko informazioa eguneratu ahal izango dute: fitxak ezabatu, osatu, berriak sartu...

Inbentarioak erabiltzaileekiko harremana bermatzeko funtzionalitatea du eta, hor, aldian-aldian, galdetegiren bat jarriko da. Orain, hasierako galdetegia dago jarrita oinarriko softwarearen inguruko galdera batzuekin.

Bestalde, lehenengo pantailan beti izango dira ikusgai "Gehien kontsultatutako proiektuak" eta "Eguneratutako azken proiektuak".

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aspaldian sortu zuen bere ekimenez sortutako euskarazko software produktua saretik doan deskargatzeko gunea. Euskaraz lan egiteko oinarriko tresnak dira: Xuxen zuzentzaile ortografikoa, bulegotikako aplikazioak (MS Office eta OpenOffice.org), sistema eragileak (Linux eta Windows), kudeaketako softwarea, plugin-ak (hitz-zatikatzaila, Elhuyar hiztegiak, UZElren sinonimoen hiztegia eta OCRa) eta web garapenerako liburutegia (Miatu erraz). Softwarea honako helbide honetatik deskargatu daiteke: www.euskadi.net/euskara_soft. IKT Inbentariotik ere esteka dago bertara.



IKT Inbentarioaren aplikazioaren erabiltzaileen eskuliburua eskuragarri dago aplikazioan bertan.

Intraneteko aplikazioaren bidez, HPSk Inbentarioak dituen funtzionalitate guztiak kudeatuko ditu: agenteek bidalitako informazioa baliozkotzat eman eta produkzioan jarri, inkestak, altak eta bajak... Horrela, informazioa homogenea izango dela bermatuko da.

Azkenik, esan behar da ekimen hau arrakastatsua izango bada, guztion babesari eta lankidetzari esker izango dela. Aurrera denon artean egin behar dugu eta, horretarako, denon ahalegina oso beharrezkoa izango da. IKT Inbentarioa tresna lagungarria izan behar da:

- Erabiltzaile arruntentzat, produktuei/proiektuei nahiz agente teknologikoei buruzko informazio zehatza eta eguneratua eskura izango dutelako.
- Agente teknologikoen bidez beren lanaren berri sarean, erreferentziatzeko leku batean, zabalduko delako eta, hortaz, bezeroak areagotuko direlako.
- Herri-erakundeentzat, IKT Inbentarioaren argitan, aurrerantzean, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien arloan lehentasunak finkatzeko orduan, erraztasunak izango dituztelako.



31,250 MILIOI EURO HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN ESANETARA

Duela gutxi, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) helduen euskalduntzearen esanetara jarri berri dituen diruen azalpena eman du. Guztira 31,250 milioi erabiliko da 2007an.

HABEek helduak euskalduntzeko jarduera bultzatzeko bi eratako laguntzak bideratzen ditu urtero: euskaltegien jarduera bera finantzatzeko diru-laguntzak eta ikasleei zuzenean emandakoak.

Euskaltegien jarduera bera finantzatzeko 30 milioi euroko laguntzak emango ditu HABEek: 20 milioi euskaltegi pribatu homologatuentzat eta 10 milioi udal euskaltegiarentzat. Gaur egun, HABEek homologatutako euskaltegi-sarean 109 euskaltegi eta autoikaskuntza-zentro daude Euskal Autonomia Erkidegoan. Horietatik 39 publikoak dira (udal euskaltegiak) eta 70 pribatuak. Euskaltegi-sare honetan urtero-urtero 35.000-40.000 ikasle heldu aritzen dira.

HABEek ikasleei zuzenean emandako diru-laguntzei dagokienez, orotara 1,25 milioi euroko laguntza banatuko die aurten ikasleei, matrikuletan izandako gastua leuntzeko edo estaltzeko, HABEren mailaren bat edo EGA deialdi itxia gainditzen dutenentzat.

01 IKASLEENTZAT 1,25 MILIOIKO LAGUNTZA

2006. urtekoan, 625.000 eurokoa izan zen xede honetarako jaso zen aurrekontua, HABEren mailaren bat gainditu zuten ikasleentzat: 600 eurorainoko laguntza 1. maila gainditzen zutenentzat eta 400 eurorainokoa gainerako mailak gainditzen zituztenentzat. Denetara 2.077 ikasle izan ziren eskaera aurkeztu eta laguntza jaso zutenak. 2007ko aurrekontuan, berriz, programa honek duen garrantzi estrategikoa aintzat hartuta, % 100eko gehikuntza jaso da: denetara 1.250.000 euroko zenbatekoa, hain zuzen ere, ikasleen artean banatzeko. HABEren zuzendari nagusia den Joseba Erkiziaren arabera, "aurrekontu-hazkunde horren bitartez, ikasle bakoitzak gehienez jaso dezakeen kopuruaren muga igotzea lortu da eta ikasle gehiagorengana iritsi nahi dugu".

Honenbestez, HABEren lehen mailako agiria eskuratzen duten ikasleek 750 euro jaso ahal izango dituzte; bigarren mailakoek 550 euro; hirugarren mailakoek 450; eta laugarren mailakoek 400.

Ikasleek diru-laguntzetarako eskariak aurkezteko epea 2007ko irailaren 10ean hasi eta urriaren 10ean amaituko da.

Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, euskara ikasten edo hobetzen ari diren herritarren ahalegina eskertu ondoren, zera nabarmendu zuen azalpen-ekitaldian: sekulako ekarpena egiten diotela gizarte-kohesioari euskara ikasteko urratsak egiten dituztenek, gizarte hau osatzen duten bi hizkuntza komunitateen artean zubiak eraikiz. "Horregatik guztiagatik lagundu nahi ditu diruz Eusko Jaurlaritzak euskara ikasi edo hobetzeko ahaleginak egiten dituzten herritarrak".



Ezker-eskuin: Patxi Baztarrika eta Joseba Erkizia

02 ELEBITASUNA LORTZEA HELBURU

Baztarrika sailburuordeak azpimarratu zuenez, azken bi hamarkadetan gure gizartean elebidun diren pertsonen kopurua arrunt hazi da. "Duela hogeitahogei bost urte bost herritarretatik batek zekien euskara. Gaur egun, berriz, hirutik batek daki euskaraz. Gainera, belaunaldi gazteenak dira gaur euskal hiztun gehienak dituztenak; pertsona elebidunen hazkundea batez ere adin sektore gazteenetan izan baita". Hala eta guztiz, ohartarazi zuen euskararen erabilera dela gaur dugun erroka nagusia, eta lortu nahi den elebitasun sozialerako bidean, ekarpen guzti-guztiek dutela beren balioa.

HABE
Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Bere iritziz, elebitasun esparruak zabaltzeko "ez da ezinbestekoa herritar guztiak EGAdunak izatea, edo HABEren 3. edo 4. mailaren agiriak edota administrazio 3. edo 4. hizkuntza-eskakizunak eskuratzea". Gehitu zuten herritarren artean komunikazioa posible egitea dela gakoa, "zeren eta elebitasunak ez du zertan gauza simetrikoa izan". Gaurko egoera soziolinguistikoa, "horrek esan nahi du euskaraz bizi nahi duenak euskaraz bizitzeko eragozpenik ez izatea landu behar dela", azaldu zuen. Eta horretarako ez da behar denek bi hizkuntza ofizialak maila berean, "goi-mailan, menderatzea. Hala balitz hobe". Belaunaldi gazteetan, jakina, horretara hurbiltzen ari garela esan zuen, baina helduetan denek ez dutela "euskaldun zahar, euskal hiztun eskolatu edo euskal hiztun aurreratu izan beharrik" euskararen erabilerrari lekua zabaltzeko.

Horren kariaz gaineratu zuen euskaldun pasiboak ere behar dituela euskaraz. "Zergatik ez? Eguneroko bizitzan ohikoak ditugun hizkuntza-jardunak euskaraz ulertzeko gai izatea eta zer edo zer euskaraz mintzatzeko gai izatea oso baliagarriak izan dakizkioke euskararen erabilerrari. Hizkuntza ohitura berriak sortzeko aukera ematen du euskara neurri batean bederen ikasteak: lagunarte euskaldunetan, seme-alaba elebidunekin, funtzio sozial ohikoenetan euskara normaltasun handiagoz egiteko ahalbidea ematen du euskara ikasteko pausoa ematen duen herritarrak. Hainbat esparrutan eta egoeratan, euskal hiztunari euskaraz jarduteko aukera gehiago zabaltzen baitio".

"Euskara ikasten ari direnek jakin behar dute balio handikoa dela beren ekarpena, eta konplexurik gabe, lotsa galduta ekin behar diotela euskara erabiltzeari. Ez dago euskara txarrik, egiten ez dena da euskara txar bakarra. Hizkuntza maitatzea bai, ondo dago; baina batez ere erabilera da euskaraz behar duena, hitz egiterakoan ematen diogun arnasa", azpimarratu zuen sailburuordeak.

Horregatik, amaitu zuen Baztarrikak, esandako guztiagatik, euskara "ikasi edo hobetzeko ahaleginak egiten dituzten herritar guztiak ongi mereziak dituzte Eusko Jaurlaritzaren txaloak ez ezik, baita gaur hemen aurkeztu ditugun diru-laguntzak ere".


euskararen Berripapera

EUSKARA HUTSEZKO HEDABIDEEN ALDE

Euskarazko hedabideak indartu eta sendotze aldera berriki ebatzitako diru-laguntzen haritik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hiru neurri berri hartu ditu. Neurriok laster batean egongo dira indarrean.

Hiru dira HPSk hurrengo asteetan indarrean jarriko dituen neurriak. Honako hauek hurrenez hurren: Berrikuntza Saria, HOBFA deialdia eta telebista bidezko berriazko publizitate-kanpaina bat.

Berrikuntza Sariaren bidez kontsumitzaileen premiak eta beharrak ase eta,aldi berean, ekonomikoki bideragarria egite aldera berriazko ahalegina egin duen euskarazko hedabidea saritu eta dagokion jendaurreko aitortpena egitea nahi du HPSk. HOBFA deialdiak, berriz, honako xede hau du: euskara hutsezko hedabideetan hobekuntza-azterketak bideratze aldera diru-laguntzak ematea. Publizitate-kanpainaren bidez, bestalde, herritarren artean euskara hutsezko hedabideen kontsumoa sustatu nahi du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.



LANKIDETZA-HITZARMENAK

Hurrengo asteetan, Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hiru lankidetzahitzarmen sinatuko ditu. Hurrenez hurren, honako erakunde hauekin hain zuzen ere: Nafarroako Euskara Kultur Elkargoarekin, Euskara elkarten federazioa den Topagunearekin eta ONCE edo Espainiako Itsuen Elkarte Nazionalarekin. Guztira 203.000 € euro jarriko da.

Euskara Kultur Elkargoak euskara eta euskal kulturaren alde egiten duen lanaren garrantziaz jabetuta, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 60.000 € jarriko ditu Nafarroako Foru Erkidegoan ari den elkargo edo fundazio horren 2007ko jarduerara laguntzeko.



Topagunearekin sinatuko duen hitzarmenari esker, han-hemen hiztunen artean euskara erabiltze aldera bideratzen diren eta bidera daitezkeen Mintza praktika izeneko egitasmo berriak sustatu nahi dira eta, aldi berean, martxan daudenen jarraipena eta ebaluazioa egin nahi da. Hitzarmena iaz sinatutakoaren segida da. Aurten 72.776 € jarriko ditu HPSk zeregin horretarako.




Espainiako Itsuen Elkarte Nazionalarekin sinatuko den hitzarmenari esker, ikusmen urritasuna duten pertsona euskaldunek dozenaka euskarazko literatur lan irakurtzeko aukera izango dute. Era berean, euskara/gaztelania hiztegi bat kontsultatzeko modua izango dute eskueran. 2007ko ekitaldian 70.000 € jarriko ditu HPSk. Honako hitzarmen hau ere aspalditik datorrenaren segida da. Gaur eta hemen, 163 liburu dago jarrita Braille hizkuntzan eta 344 Daisy sistema digitalean.



"BIDEGILEAK" BILDUMAREN 2007KO ETA 2008KO UZTA

Bilduma honek euskararen alde aritutako norbanakoak, etxeoak zein kanpokoak, ditu aztergai. Aztertu ez ezik, omendu ere egin nahi ditu, gaurko zein bihar-etziko belaunaldiek gu baino lehen aritu izan diren andre-gizon saiatu horien berri izan dezaten.

Bere ibilbidean etenik gabe, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak argitara emandako "Bidegileak" bildumak lan berriak lantzen jarraitzen du. Urtea bukatu baino lehen beste hamasei liburuxka kaleratuko dira 47-48-49-50 sortetan. Horietatik lehena bertsolariekin (Manuel Lasarte, Basilio Pujana, Manuel Olaizola "Uztapide" eta Inaxi Etxabe) osatutakoa da; bigarrena, berriz, idazleekin (Gracian Adéma "Zaldubuz", Eujenio Agirretxe, Nikolas Alzola "Bitaño" eta Katalina Eleizegi); hurrengoa irakasleekin (Patxi Ondarra, Joxemari Aranalde, Lurdes Arrieta eta Mikela Gastesi); eta, azkenik, laugarrena Ameriketara ibilitakoe-kin (Bernardo Maria Garro "Otxolua", Filipe Oihanburu, Andoni Arozena eta Aña Etxehandi).



Era berean, aurrerapen gisa, hona hemen 2008ko sorta berrietan (50-51-53-54) jorratuko diren gaiak: egile klasikoak (Sebastian Mendiburu, Pablo Pedro Astarloa, Joannes Leizarraga eta Joakin Lizarraga); eragileak (Fernando Muniozguren, Xabier Olaskoaga, Xabier Peña eta Miren Terese Urrestarazu); kargudunak (Louis Dassance, Federico Baraibar, Antero Apaolaza eta Julene Urzelai); eta bertsolariak (Martin Treku "Mattin", Miel Arozamena, Joxe Miel Iztueta "Lazkao Txiki" eta Justina Aldalur).

"Bidegileak" bildumako biografiak www.euskara.euskadi.net helbidean ikus daitezke.

OHARRA

Laster, irailean seguruenik ere, paperezko bertsioa bazterrean utzi gabe, **Euskararen Berripapera** buletin elektronikoa gisa agertu eta zabalduko da. Gaur arte paperean jaso arren, aurrerantzean bertsio elektronikoa baino jaso nahi ez baduzu, bidali iezaguzu, mesedez, mezu bat honako helbide honetara: berripapera@ej-gv.es. Bertan, jakinarazi zure izen-abizenak eta buletina jasotzeko helbide elektronikoa.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria - Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16 berripapera@ej-gv.es

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

07 ABUZTUA

Asteazkena 01

Osteguna 02

Ostirala 03

Larunbata 04

Igandea 05

Astelehena 06

Asteartea 07

Asteazkena 08

Osteguna 09

Ostirala 10

Larunbata 11

Igandea 12

Astelehena 13

Asteartea 14

Asteazkena 15

Ostirala 31

Osteguna 30

Asteazkena 29

Asteartea 28

Astelehena 27

Igandea 26

Larunbata 25

Ostirala 24

Osteguna 23

Asteazkena 22

Asteartea 21

Astelehena 20

Igandea 19

Larunbata 18

Ostirala 17

Osteguna 16

